



AKTA

ORGANOA: Aparteko Osoko bilkura.
DEIALDIA: Lehenengoa
EGUNA: 2019/05/02
ORDUA: 19:00 – 20:00
LEKUA: Pleno aretoan.

BERTARATUAK:

Alberto Garro Uribe (EH Bildu)
Saioa Bildosola Gerrikabeitia (EH Bildu)
Rakel Gandiaga Irusta (EH Bildu)
Ion Ander Barruetañña Gerrikabeitia (EAJ-PNV)
Jose Luis Zelaia Basterretxea (EAJ-PNV)

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE:

Ana Rosa Arriaga Jaio (EH Bildu)
Iñigo Uribe Fundazuri (EAJ-PNV)

IDAZKARI – KONTUHARTZAILEA:

M^a Concepcion Mallea Madariaga.

1. Udaleko lanpostuen zerrenda onartu.
2. Simón Bolívar Museoko lanpostua betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarriak onartu.
3. 2019ko aurrekontuaren 2019/01 aldaketa onartu: Kreditu Transferentziak.
4. 2018ko Kontu Orokorra onartu.
5. Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren estatutuen aldaketa onartu.



6. Hainbat gestioen gaineko informazioa eman.
7. Eskari-galderak.

1. UDALEKO LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTU.

Udalbatzak, aho batez, ondorengoa onartu du:

- 1- "Museoko zuzendari- kontzerbatzailea" izeneko lanpostua amortizatu.
- 2- "Simón Bolívar Museoko teknikaria" izeneko lanpostua sortu.
- 3- Udaleko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartu, goian jasotako erabakiak aplikatu daitezten.
- 4- Akordio hau eta aldatutako Lanpostuen Zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu.

2. SIMÓN BOLÍVAR MUSEOKO LANPOSTUA BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN DEIALDIA ETA OINARRIAK ONARTU.

Ion Ander Barruetabeña zinegotziak proposatu du hautaketa-prozesua arautzeko oinarrietako II eranskineko gai zerrenda orokorrean sartzea beste gai bat Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeari buruz. Proposamena aho batez onartu da.

Hortaz, Simón Bolívar Museoko erdi mailako teknikariaren plaza bitarteko funtzionario bidez betetzeko prozesua arautuko duten oinarriak aztertuta eta espedienteko gainerako agiriak, Udalbatzak, aho batez, ondorengoa erabaki du:

1. Hautaketa-prozesu honen deialdia egin: Simón Bolívar Museoko erdi mailako teknikaria, administrazio bereziko eskalako, A2 sailkapen-taldekoa, 3. hizkuntza eskakizunarekin.
2. Deialdi hau arautuko duten oinarriak onartu. Ebazpen honi atxikita doaz oinarriak.



3. Hautaketa prozesuko Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatzeko dagozkion tramiteak abian jarri.

4.- Deialdi hau eta oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu.

3. 2019KO AURREKONTUAREN 2019/01 ALDAKETA ONARTU: KREDITU TRANSFERENTZIAK.

2019. ekitaldiko aurrekontuaren 2019/01 zenbakidun aldaketaren espedientea ekarri da osoko bilkurara. Aldaketa honetan datza: kreditu transferentziak egitea, zenbateko totala 18.200 euro.

Azaldutakoa kontutan hartuta eta, baita, idazkari-kontuhartzailearen txostena eta Kontuen Batzorde Bereziaren aldeko irizpena, udalbatzak, aho batez, ondorengoak erabaki du:

1.- 2019. ekitaldiko aurrekontuaren 2019/01 zenbakidun espedientea onartu, 18.200 euroko zenbatekoan, gehitu eta gutxitzen diren aurrekontu partidak ondorengoak izanik:

Gutxitzekoa den gastuen partida (baja)			Gehitzekoa den partida (alta)		
Partida	Izena	Zenbatekoa	Partida	Izena	Zenbatekoa
I Kap. 333.	Soldata	- 18.200	333.22700	Beste enpresetatik jasotako zerbitzuak	18.200
	GUZTIRA	- 18.200			+18.200

4. KONTU OROKORRA ONARTU.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak (Bizkaiko Toki Erakundeen arrazionalizazioari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2015 Foru Arauaren bidez emandako idazketarekin) 62. artikuluan eta ondorengoetan ezarritako tramiteak betez, eta baita ere Bizkaiko Toki



Erakundeen Kontabilitateari buruzko Instrukzioaren 1 eranskinaren 51 erregela (uztailaren 28ko 139/2015 Foru Dekretuak onartuta).

Kontuan hartuta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena;

Udalbatzak ondorengo erabaki du, EH Bilduko hiru zinegotzien aldeko botoekin eta EAJ-PNVko bi zinegotzien kontrako botoekin:

1. 2018 ekitaldiko Kontu Orokorra onartu.
2. Kontu Orokorrari buruzko iragarkia argitaratu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, hamabost laneguneko epea zabalduz kontsultak, erreklamazioak edo oharrak aurkeztu ahal izateko.
3. Herri Kontuen Euskal Epaitegira derrigorrezko dokumentazio guztia igorri, erabaki honen ziurtagiriarekin batera.

ESANDAKOAK: Ion Ander Barruetabeña zinegotziak arrazoitu du bere taldearen kontrako botoa Altzibarraldeko obrarekin udalak egin duen gestioarekin ados ez egotea.

5. BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA ONARTU.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren estatutuen aldaketaren proiektua ekarri da osoko bilkurara.

Estatutuen aldaketa justifikatzen dituen arrazoiak, hain zuzen ere:

- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeari egokitzea.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea egokitzearen ondoriozkoak.



Laburtuz, ondorengoei eragiten die: Hitzaurrea, Atariko xedapenetako lehena, 27 artikulua, Xedapen Iragankorra, Xedapen Indargabetzailea eta Azken Xedapena.

Azaldutakoa kontutan hartuta, udalbatzak, aho batez (udal erakundea osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa suposatzen duena), ondorengoa erabaki du:

1.- Onartu Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren estatutuen aldaketaren proiektua.

2.- Erabaki hau Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eman.

6. HAINBAT GESTIOEN GAINEKO INFORMAZIOA EMAN.

Ondorengo gaiei buruzko informazioa eman zaie batzarkideei:

- Zabor-batze zerbitzua: hondakin bereziak.
- Zabor-batze zerbitzua: tamaina handiko hondakinak.

7. ESKARI-GALDERAK.

- Ez da aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ez dagoelarik, alkateak batzarra amaitutzat eman du.

Alkatea,
Alberto Garro Uribe



Idazkaria,
M. Concepción Mallea Madariaga

